

## I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**12/2015 Foru Araua, abuztuaren 3koa, 2/2015 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko dena. Honen bidez, ez-egoiliarren errentaren gaineko Zergaren Foru araua aldatzen da**

Arabako Biltzar Nagusiek, Batzorde Iraunkor gisa eraturako Arautegi eta Barne Gobernu Batzordeak 2015eko abuztuaren 3an egindako bilkuran ondoko foru araua onetsi du:

12/2015 Foru Araua, abuztuaren 3koa, 2/2015 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko dena. Honen bidez, ez-egoiliarren errentaren gaineko Zergaren Foru Araua aldatzen da.

#### HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa- 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorriz, Diputatuen Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, 2/2015 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua. Honen bidez ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren Foru Araua aldatzen da.

Aipaturiko 8. artikulua 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Biltzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda eta Batzorde Iraunkor gisa eraturako Arautegi eta Barne Gobernu Batzordeak baliozkotzeko erabakia hartuta, Arabako Biltzar Nagusietako Funtzionamendu Araudiaren 147. artikulua arabera, bidezkoa da aipaturiko Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

Artikulu bakarra. Baliozkotuta geratu da 2/2015 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua. Honen bidez, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren Foru Araua aldatzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko abuztuaren 3a

*Lehendakaria*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**